



**HAL**  
open science

## Gernikako euskararen azterketa dialektologikoa

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

► **To cite this version:**

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria. Gernikako euskararen azterketa dialektologikoa. 2009. artxibo-00698800

**HAL Id: artxibo-00698800**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00698800v1>**

Preprint submitted on 17 May 2012

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# **Gernikako euskararen azterketa dialektologikoa**

Ariane Ensunza Aldamizetxebarria

Euskal Filologiako 3.maila

2008-2009 ikasturtea

[ariane.ensunza@gmail.com](mailto:ariane.ensunza@gmail.com)

---

<sup>1</sup>2009-2008 ikasturtean Euskal Filologiako karreraren Dialektologia I izeneko ikasgaiari Koldo Zuazorentzat egindako lana da honako hau.

## **Aurkibidea:**

|                                       |    |
|---------------------------------------|----|
| Sarrera-----                          | 2  |
| Gernikaren kokapena-----              | 3  |
| Gernikako euskararen ezaugarriak----- | 5  |
| Fonologia-----                        | 5  |
| Izen Morfologia-----                  | 9  |
| Aditz Morfologia-----                 | 11 |
| Sintaxia-----                         | 13 |
| Lexikoa-----                          | 14 |
| Aldaerak-----                         | 15 |
| Ondorioak-----                        | 16 |
| Bibliografia-----                     | 19 |
| Eranskina (Transkripzioa)-----        | 20 |

## Sarrera


Dialektologia II irakasgairako egin dudana lan honetan, Gernikako euskararen inguruko azterketa dialektologiko bat egiten ahaleginduko naiz. Horretarako, Gernikako euskarak dituen ezaugarriak ateratzen eta deskribatzen saiatuko naiz. Gernika mendebaleko azpi-euskalki nagusi bien (sartaldekoa eta sortaldekoa) arteko hizkera da, Busturialdeko beste hainbat herritako euskararekin batera eta, gainera, hizkuntz-aldakortasun handia dagoen lekua ere bada, merkataritza gune garrantzitsua izateaz gain, irakaskuntzan ere indar handia duelako. Horregatik, inguruko herritarrak Gernikan biltzen dira eta bertan egiten dute koadrila eta hizkeren arteko trukaketak gertatu da. Arrazoi hauengatik, interesgarria iruditu zait Gernikako euskara aztertzea.

Lan hau egiteko, Gernikako 23 urteko hiztun gazte bati egin diot elkarrizketa eta bertatik hartu ditut lanean zehar azalduko ditudan ezaugarri gehientsuenak. Gainontzeko adibideak, nire inguruko hiztun gernikarrendik jaso ditut. Bihoakie nire eskerrik beroenak egun hauetan laborategiko arratoiak izan diren guztiei eta, nola ez, zientzia lanetan hainbeste lagundu didan Urtzi ‘Darwin’ Reguero zientzialariari.

Lehenengo eta behin, Gernikaren kokapen geografiko eta soziolinguistiko bat egingo dut eta ondoren, bertako euskarari dagozkion ezaugarriak emango ditut fonologia, morfologia, sintaxia, lexikoa eta aldaerak ataletan bereiziz. Amaitzeko, ondorio batzuk aterako ditut eta Gernikako euskara mendebaleko euskararen barruan kokatzen ahaleginduko naiz, sartaldeko euskararekin eta sortaldeko euskararekin komunean dituen ezaugarriak bereiztuz eta gaur egungo hipotesia, hau da, tarteko hizkera dela esaten duen hipotesia baieztatzen ahaleginduko naiz.

## Gernikaren kokapena

Jarraian datorren mapan<sup>2</sup> ikus dezakegunez, Gernika Bizkaiko ipar-erdialdean dago kokatuta, Busturialdea eskualdean eta Urdaibaiko biosferaren muturrean. Oka ibaiak zeharkatzen du ekialdetik mendebalera. Gernikak, Errigoiti, Muxika, Ajangiz, Arratzu, Kortezubi eta Forua herriak dauzka inguruan. Hala ere, Busturialdea herri gehiagok osatzen dute: Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Morga, Mendata, Nabarniz, Gauteviz-Arteaga, Ibarrangelu, Elantxobe, Ereño eta Ea. Hauetatik guztietatik herririk hazienetako bat da Gernika, 2007ko datuen arabera, 16.171 biztanle inguru dauzkana. Horregatik, inguruko herri txikietako biztanleek Gernikan egiten dituzte Batxilergoko ikasketak (eta lehenagokoak ere askok) eta bertan topatzen dute koadrilla ere. Honen eraginez, herrietako ezaugarriak nahastu egiten dira askotan eta elkar kutsatzen dira, beraz, Gernikan gaur egun hizkuntz-aldakortasun handia dagoela esan daiteke.



<sup>2</sup> Iturria: Wikipedia eta Google-ko mapak



Gernikako egoera soziolinguistikoari dagokionez, esan daiteke kalean euskaraz hitz egiten dela gehienbat. Hala ere, gaztelaniara jotzeko erraztasuna ikaragarritzkoa da eta, gainera, gero eta etorkin gehiago dago euskaraz ikasten ez duena. Gernikako Udalak 2006an egindako Gernika-Lumoko Euskararen Kale Erabileraren Neurketaren arabera, honako hauek dira emaitzak:

|                                           |                                      |
|-------------------------------------------|--------------------------------------|
| <b>Euskararen KALEKO ERABILERA (2006)</b> | Euskararen EZAGUTZA (01)             |
| <b>% 51,5</b>                             | <b>% 69,3</b>                        |
| <b>Neurtutako hiztun kopurua</b>          | <b>Gernikako hiztun kopurua (01)</b> |
| <b>3.440 (herritarren % 23 )</b>          | <b>14.884</b>                        |

Ikusten dugunez, dakiten guztiek ez dute euskara erabiltzen kalean eta, gainera, ehuneko berrogeita hamarra baino zertxobait gehiago baino ez dira euskaraz berba egiten dutenak.

## Gernikako euskararen ezaugarriak

### I. FONOLOGIA

#### 1. Bokalak:

##### **Arauk:**

1) **a+a>ea> ie** egiteko joera: *bueltie* ‘buelta’, *denporie* ‘denbora’, *txokolatadie* ‘txokolatada’, *protagonistie* ‘protagonista’, *gitxarrie* ‘gitarra’ *porrie* ‘porra’... Ikusten denez, arau hau guztiz sistematikoa da, hitz berrietan eta mailegutan ere aplikatzen delako.

2) **a > e / i,u (C)\_**, hau da, i eta u bokalek eraginda a→e egiten da: *ikastetxie* ‘ikastetxea’, *jéntie* ‘jendea’, *goixien* ‘goizean’, *pelotoie* ‘pelotoia’, *ordue* ‘ordua’, *amorrue* ‘amorrua’, *pisure* ‘pisura’ ... Hitzari artikulua gehitzerakoan gertatzeaz gain, hitz barruan ere gertatzen da fenomeno hau, beraz, esan genezake nahiko indartsua dela: *Gerniken* ‘Gernikan’, *mille* ‘mila’, *ixeteskun* ‘izaten doskun’, *eskumeko* ‘eskumako’... Hala ere, kasu batzuetan eta, batez ere, elkarren ondoan dauden berba bitan, araua ez da guztiz sistematikoa, hau da, araua ez da betetzen beti: *se ordutan* (*se orduten* espero genuke), *orri bat*, baina *notisi faltsu bet* aurki ditzakegu hitzun berarengan. Gauza bera esan daiteke beste edozein gernikarri dagokionez, beraz, legea indartsua bada ere, ez da beste eskualde batzutan bezain indartsua.

3) **EDUKI-ren adizkien erroan –e- agertzen da beti:** *dekotes* ‘dauzkat’, *dekon* ‘daukan’, *dekosuna* ‘daukazuna’, *badekie* ‘badaukate’, *dekogus* ‘dauzkagu’, *dekosu* ‘daukazu’...

4) **Gernikan ez da gertatzen mugatzailearen asimilaziorik, ezta hitza mugatua denean ere:**

*goixien estait se ordutan ixete san*

*San Juan Ibarra* *mueblerixen* *itxaoten tzagun*

*Urteta sanien ondo, baia irakasliek ikusi eskero han etorten san jaten obligetan*

*hamen istorixek kontetan hasi eskero*

*proiektue* *apur bat oin momentuen estau puntu onien*

5) /e+a,e,o/ → ia (>ie) gertatzen da: *Udaletxie, bestie, sanien, taldie, gastie...*

/o+a,e,o/ → -oa- mantentzen da Gernikan, baina alboko herrien eraginez, kasu batzuetan, -ue- gertatzen da transkripzio honetan ikus dezakegunez: *majoa, piyoa, turnoak, automosiñoan, Kanpantxukoa*; baina, *karameluek, proiektue, ditxosue, Ajangisekue...*

/i+a,e,o/ → -x- kontsonante epentetikoa tartekatzen da bokal bien artean: *herrixetako, mueblerixen, gehixena, patixora, kopixetako, antzerkixek, bijilantzixe, residentzixen, laboratorixoan...* Ikusten denez, fenomeno oso indartsua da Gernikan, mailegu eta hitz berrietan ere tartekatzen delako.

**Garatu gabeko arauak:**

1) **Dardarkari aurrean e → a gertatu da *bardin, barri, txarri* aldaeretan.** Arau hau ez da beti gertatzen, *herri, gerri, baserri, eskerrik asko, eberdi* ('eguerdi'), *agertu, atertu, aker, usker* bezalako formak agertzen direlako Gernikan. Gainera, hiztun honengan, adibidez, *barri* forma aurkitzen dugu, baina era berean, *berri* forma agertzen da esanahi desberdinarekin, hau da, *albiste* esanahiarekin. Horrez gain, esan daiteke ez dela arau emankorra, gaztelaniazko maileguetan ez delako eman: *internet* eta ez *\*intarnet*, adibidez.

2) **Hitz hasieran u- dago *uger, ule, untze* eta *urten* aldaeretan.** Grabatu dudan hiztunarengan *urten* aldaera bilatu dut, baina *uger, untze* eta *ule* ez, 30minutu inguruko grabazio batean ezin delako guztia bildu. Hala ere, Gernikako edozein hiztunengan aurki daitezke *ule, untze* eta *uger* aldaerak: *Txarto urten salako. Joan ferreterixara eta erosi bost untze. Geur goixien ulie ebai dot*

3) **i-a → i-i asimilazioa gertatzen da hainbat aditzetan, baina ez da erabateko araua:** *irikiñ, iribixeu*, baina *igerri, ikesi, irabasi, ixetu, isen, siketu...*

4) **Partizipioetan, -i galtzen da, baina ez beti:** *ipin gendun* baina *ipiñi gendusén, ibil san...*



**5) JOAN eta EROAN-en adizkietan ez dago -i- agertzeko joerarik Gernikan:** *noa, zoaz, doa, goaz, doaz, daroat, daroagu...* Era honetakoak ohikoagoak badira ere, hiztun batzuek -i- sartzen dute JOAN-en adizkietan (EROAN-en ez da gertatzen), beharbada inguruko herritarrengandik jasota (Kortezubi, Arteaga, Ereño, Natxitu...): *Geur arratsaldien enoie lonjara*

**6) -au-→ -eu- egiten da, batez ere -au amaiera duten partizipioetan:** *olgeu, kanteu, paseu, pentseu, suisideu..* Bilakaera berbera hitz barruan ere gertatzen da, baina ez beti, transkripzioan ikusten den bezala: *geusa* baina baita *gausa* ere, *eurrrera* baina *aurrien*, *jeusi* baina *jausi* (nahiz eta transkripzioan ez agertu)...

**8) -\*uin→ -un:** *bigun,*

**9) -\*ani> ain:** *usaiñ, araiñ, zaiñ...*

## **2.Kontsonanteak:**

### **Arauk:**

**1) Txistukariak neutralizatu dira:** *nas, estait, es, garrerriegas, askenien...*

**2) Hitz hasieran [x] ahoskera dago:** *jaixo, joan, jateko, jolastorduetan...*

**3) Asimilazio bustidura oso indartsua da bustidura:** 1) /Vj\_\_V/ (diptongo eta bokal artean dagoenean): → *baiño, baiña, beiñ, oiñ, aitxitxe, aitxe...* 2) /i\_\_V/, /i\_\_2/: *bardiñ, eiñ, dakitx iños, siñien, giñen, miye, urtarriyien*, 3) /i+ nd, ld/: *eiñddabe, ordaiñddute, eiñddot, illdde, billddurre...* Ohar bedi -ll->-y- eta -tt->-tx- bilakabideak gertatu direla.

**4) Vj + z/tz→ V+ x/tx bustidura gauzatzen da:** *goixien, aretxa, gatxa, atxa...*

**5) i + z→ i + x ere gertatzen da:** *ixen, badakixu, eixu...*

Bi arauok galbidean daude, ez dira beti gertatzen gazteengan transkripzioan ikus dezakegunez. Helduengan, ostera, sarriago gertatzen da

6) **l, n, eta r ondorengo txistukari igurzkaria bere horretan mantentzen da:** *ixete san, egote san, urteta san, etorte san...*

**Garatu gabeko arauak:**

1) **Gaztelaniatik hartutako maileguetan l, n ondorengo p eta t ahoskabe mantendu dira hiru kasu hauetan:** *altare, denpora, jente*

2) **Kasu batzutan l > r bihurtu da:** *armusu, arkondara.*

3) **Hitz batzutan -r- zaharra gorde da:** *bedar, edur, ider.*

4) **Hitz hasiera batzutan N- dago L- orokorraren lekuan:** *narru, nasai.*

5) **h>g aldaketa ematen da zenbait hitzetan:** *ogera, agoa...*

### **3. Azentua**

Gernikako azentua nahiko aldakorra da, hau da, hitzaren arabera silaba batean edo bestean kokatzen da azentua. Hualdek (1997: 173) dioenez, Gernikaldeko sisteman azentu fijoko hitzek, hau da, azentu markatua dutenak, edozein silabatan izan dezakete azentua. Markatu gabeek, aldiz, azken silaban daukate azentua. Badirudi hitz askotan goranzko eta beherazko azentuak daudela eta, horregatik, zaila da azentudun silaba bereiztea horretarako tresna berezirik gabe.

Dena dela, erakusleetan, esaterako, singularra eta plurala azentuaren bidez desberdintzen dira. *Honék ein deu* eta *hónek ein dabe*. Horretaz gain, itxura bera baina esanahi desberdina daukaten hitzak ere azentuaren bidez desberdintzen dira: *básoa* ‘edalontzia’ eta *basóa* ‘oihana’, *ónena* ‘hoberena’ eta *honéna* (erakuslea)... Desberdinketa hau, Hualde (1997: 174) jarraituz, hitz markatu gabeetan bakarrik gertatzen da. Markatuetan, ostera, azentua leku berean daukate singularrak zein pluralak. Hualderen adibidea ekarriz: *gusúrtixek esan deu* eta *gusúrtixek esan dabe*. Modu berean, talde prosodikoaren arabera ere alda daiteke hitzaren azentua. Transkripzioan bertan aurki dezakegu honen adibide bat: *Ta gero emoteskuen boltsa bat*

*boyoakas eta Kasagas edo estait se isete san da han danak, sera baiño posau, juergán, betiko ambientien [...]*

*Beiñ, akordetan nas, Gasteisera joaten giñela lenengo urtien piyo bat juérgan ta han, goiseko saspiretan heldu residentzire bueltan ta nik beti eitxen naben, ondiño eitxen dot juergie [...].*

## II. IZENAREN MORFOLOGIA

### Arauk:

**1) Artikulu hurbila erabiltzen da, baina galbidean dago:** *jakingo basendue, gastiek, saharrok dakigune!*

**2) Erakusleetan erro bera dago ergatibozko singular eta pluralean:** *horrék mutiyek esan dost eta hórrek mutiyek esan dostie.* Eta *ha* erakusle berezia dago ‘hura’ adierazteko.

**3) *neuk, zeuk* izenordain indartuak erabiltzen dira, baina galbidean daude**  
**Gernikan:** *Askenien be, neuk eiñddot seuk ein biherrekoa*

**4) Ergatibo pluralean –ak morfema agertzen da:** *baskarixe amák ein deu eta baskarixe ámak ein dabe*

**5) Bizidunekin, adlatiboan –ñe atzizkia erabiltzen da:** *gehixorik nau ta medikueñe jungo nas. Umie jeusi ein da ta amañe jun da negarres.*

**6) Bizigabeekin, hurbiltze adlatiboan atzizki berezia dago, -RANTZ(A):** *Etxerantza jun bikogu, berandu da-ta.*

**7) Ablatibo zaharra gorde da egitura batzuetan, baina oso kasu gutxitan erabiltzen da:** *etxerik-etxe ibiyi gara kantetan*

**8) Soziatiboan –GAS dago singularrean eta –KAS pluralean:** *bategas, santarragas, baloiegas, Donostikoagas...gurasoakas, boyoakas, Barrutikoakas, eureka...* Hala ere, lantzean behin –KIN soziatibo marka ere erabiltzen da Gernikan plurala egiteko, transkribaketan bertan ikusten den bezala: *ta gero eurekiñ ein gendun berba.*

**9) Mugimenduzko aditzen osagarria ZERTAN kasuan dago:** *han etorten san jaten obligetan... danak urtenbien ya patixora fubolera jolasten.*

**10) ‘EDO + izord. galdetzailea’ egiturazko izenordainak daude:** *edonor, edonori, edonos, edonun, edonogas...*

**11) ‘Izord. galdetzaile + EDO + izord. galdetzaile’ egiturazko izenordainak ere badaude:** *nonok, nonor, nonos, nonori, nonogas, nunundik...*

**12) Erdal –(c)ión→ -(z)iño:** *prosesiñoa, ilusiñoa, resepsiñoa, automosiñoa, afisiñoa, ilegalisasiñoa, situaciñoa...* Bizirik dagoen araua da, hitz berrietan eta maileguetan ere gertatzen delako.

**13) Erdal –ón→ -oi:** *meloi, kamoi, balkoi, kondoi, boteyoi...* Arau hau ere bizirik dago, hitz berri eta maileguetan ere gauzatzen delako.

**15) –TXU atzizki txikigarria asko erabiltzen da Gernikan:** *Hodeitxu, txikitxue, gogortxue...*

**16) -LAN edo -LANIK atzizkiak ager daitezke adberbioetan:** *holan eta holanik, selan eta selanik...*

**17) –RIK denbora balioarekin:** *ordu erdirik beñ pasetan da autobuse. Egun birik beñ eukitxen dogu entrenamientoa.* Baita moduzko perpausetan ere: *guaporik joan ziñen bodara.*

### **Garatu gabeko arauak:**

1) **-TO/ -TONA atzizki handitzaileak hitz gutxi batzutan erabiltzen dira:** *ondo, txarto, ederto* gisakoetan, baina baita *ugerdo* ‘nazkagarri’ gisakoetan ere. Hala ere, badirudi ez dela guztiz galdu, gaur goizean asmatutako *gose*to hitzean agertzen delako, ‘ligatzeko gogo itzela duen pertsona’ dela adierazteko.

### **III. ADITZAREN MORFOLOGIA**

1) **\*EDUN-en orainaldiko erroan -o- dago 1. eta 2.pertsonetan:** *dot, dosu, dogu*. 3.pertsonan -au- erroa dago, singularrean -eu- gertatu dena (*deu* ‘du’) eta pluralean *daue>dabe*.

2) **NOR-NORK saileko aditz-laguntzailean -o-:** *nosu, nosue...*

3) **IZAN-en erroan 3. pertsona singularrean -a-:** *zan, zala, dala...*

4) **NOR-NORI-NORK saileko adizkietan EUTSI erroa:** *doskun, dosten, dotzuen, dotzie...*

5) **3. pertsona pluraleko morfema -e- da:** *dabe* ‘dute’.

6) **EGIN aditz-erroa erabiltzen da ahalera, agintera eta subjuntiboa egiteko, baina galbidean dago:** *Geur arratsaldien eurixe ein leike. Lagundusteixu mahaixe ipintzen*. Horren orde, partizipio hutsa edo ‘ahal’ partikula erabiltzea da gaur egun ohikoena: *Geur arratsaldien eurixe ein al deu. Lagundu mahaixe ipintzen*.

7) **ARI IZAN gisako egiturak ez dira erabiltzen Gernikan:** *ikesten nau*

8) **NOR-NORI saileko orainaldian [j] dago:** *eyaten gustetan, guste eitxen yaten, geratze yaten bat aprobetako, Gerniken lortzie koste yaten...* Hala ere, Gernikako koadrila batzuetan (nirean, adibidez) [d] ari da sartzen. Badirudi, konturatu gabe ahoskatzen dutela [d], gaztelaniazko esaldi bat gernikerara itzultzeko eskatzen zaienean, *yate* esaten baitute beti: *boligrafoa lurrera jausi yat(e), Rock & Rolla asko gustetan*

*yat(e)*... Baina berbeta normalean sarritan esaten dute *daste*. ez+ \*y, *eyate* egiten dute gazteek. Helduek, ostera, *etxat*.

9) \*IO aditzean -n- tartekatzen da: *diñot, diñosu, diñogu, diñotsut*...

10) Iraganaldian, NOR-i dagokion 3.pertsonaren ezaugarria Ø da: *esan (e)ban*

11) Iraganaldian ez dago zit-, aditzaren orainaldiko forma + -n baizik: *yaten, yakon*...

12) -z pluralgilea nagusitu da: *dekotes, yates, gendusen, nebasen*...

Eta pertsonetan -ie-: *zarie*.

13) Partizipioan -GI zaharra dago aditz batzuetan: *ede(g)i* 'ireki', *eba(g)i* 'ebaki', *jagi* 'jaiki' ...

14) Erdal partizipioetako -ADO→-AU (>-E(U): *guste(u), pregunte(u), oblige(u), kontrole(u), pase(u)*...

15) Erdal partizipioetako -IDO→ -IDU: *mobidu, jodidu, konsegidu, kunplidu, admitidu*...

16) Partizipioetan au>eu / e: *kantse(u), porte(u), olge(u), pentse(u)*...

17) 'Partizipioa+TA' agertzen da: *kantseta, paseta, aburridute, konteta*...

18) Aditz izenak egiteko aukera zabala dago:

a) -TEN atzizkia erabiltzen da, partizipioa -a, (r) -i, -idu amaitzen denean: *ataraten, etorten, mobiduten, admitiduten*...

b) -TZEN erabiltzen da, partizipioa (l, n) -i amaitzen denean: *ibiltzen, ipintzen, hiltzen*...

**c)-TUTEN atzizkia erabiltzen da partizipioa -atu, amaitzen denean:**  
*konturatuten, beixuten, esnatuten, geratuten...*

**d) -ETAN atzizkia erabiltzen da partizipioa -au amaitzen denean:** *kantetan, pasetan, olgetan, kostetan, pagetan...* Transkripzioan ikus daitekeenez, kasu batzuetan -ETAN atzizkia espero genukeen lekuetan –ETEN agertzen da: *eyaten* gustetan baina *gusteten yatesen, akordetan nas* baina *akordeten nas* ere.

**19) Iraganaldiko adizki trinkoak galdu egin dira, baita orainaldiko gehienak ere:**  
*egoten san, eukitxen gendun, ikusi neban...*

**20) URTEN eta IGON iragankorrek eta iragangaitzak izan daitezke:** *urten dot* eta *urten naz. igon deu* eta *igon da.*

**21) -N gehitzen da 2 sibalako partizipio batzutan, ez guztietan:** *batun, hartun, sartun, lotun, eukin...* baina *jantzi*, adibidez.

**22) ikusi dotzut, (kotxien) eroan dotzut...** gisako jokamolde bereziak oso ohikoak dira Gernikan.

## IV. SINTAXIA

### 1) Erakuslea izenaren ezkerrean

*Askenien estait, tope naben hau karrerie Arrasaten*

### 2) Bi zenbatzailea izenaren eskuinean. Hala ere, gero eta handiagoa da ezkerrean jartzeko joera, euskara batuaren eraginez, agian:

*gausa bi gusteten yatesen bakarrik baina Ta gero handik urtebetera edo bi urte edo estait semat denpora ise san,*

### 3) EGIN aditzaren indartzaile

*askenien kendu ein biher ixesten aurretik*

### 4) BAI/ EZ erako galderetan ALA partikula jartzen da perpausaren amaieran: *geur urten bisu ala?*

### 5) Kontzesiozko perpausetan, ARREN erabiltzen da: *eguskixe eiñ arren enas plaixara jungo.* Honekin batera, TEARREN atzizki berria erabiltzen da: *eskerrik asko ni bisitxetan etortiarren.*

### 6) Perpaus osagarri batzuetan, -ENA atzizkia erabiltzen da esaldiari ziurtasuna emateko, baina galbidean dago: *badakit Jonen arrebie dana.*

### 7) Denborazko perpausetan –KERAN:

*Domekie ixekeran, dendak sarratute daus*

### 8) Erlatibozko perpaus jokatugabeak egiteko, -NEKO / -NIKO atzizkia erabiltzen da: *esetuneko jentiegas*

### 9) Ezezko perpausetako mendeko perpausetan, BA- erabiltzeko joera dago: *estakitx nire lagune Gernikera etorko badan.*



## V. LEXIKOA

**A-:** *abarketa* ‘espartina’, *adur* ‘lerdea’, *aitxitxe* ‘aitita’, *amuma* ‘amona’, *albo* ‘aldamen’, *aldats* ‘aldapa’, *amaitu* ‘bukatu’, *apurtu* ‘hautsi’, *ardi* ‘arkakuso’, *arineketan* ‘lasterka’, *artazi* ‘guraize’, *astelehen*, *astiro* ‘poliki’, *atzamar* ‘hatza’...

**B-:** *bari(xe)ku* ‘ostiral’, *basa* ‘lokatz’, *behar* ‘lan’, *berakatz* ‘baratxuri’, *bikotx* ‘biki’, *birrindu* ‘zehatu’, *birritan* ‘bi aldiz’, *bits* ‘apar’...

**D:** *domeka* ‘igande’

**E:** *eguzten* ‘asteazken’, *eguen* ‘ostegun’, *ei* ‘omen’, *erpe* ‘atzapar’, *eske(g)i* ‘zintzilikatu’, *ezkaratz* ‘sukalde’...

**G:** *Gabonzahar* ‘urtezahar’, *gatx* ‘zail’, *gatzatu* ‘mami’, *gerizpe* ‘itzal’, *gura* (*nahi*-rekin lehian) *gurumino* ‘liztor’...

**H:** *hagin* ‘hortz’

**I:** *igarri* ‘antzman’, *indaba* ‘babarrun’, *inkatu* ‘itsatsi’, *ipini* ‘jarri’, *ira* ‘garo’, *iretargi* ‘ilargi’, *isiotu* ‘piztu’, *itsulapiko*, *itzel* ‘berebiziko’, *izara* ‘maindire’, *izeko* ‘izeba’, *iñetazi* ‘kazkabarra’...

**J:** *jausi* ‘erori’...

**K:** *kirikolatz* ‘trikua’, *koba* ‘haitzulo

**L:** *laban egin* ‘irrist egin’, *labur* ‘motz’ *lantzean behin* (eta *noizean behin*), *lapiko* ‘eltze’, *lar(regi)* ‘gehiegi’, *lei* ‘izotz’, *lepo* ‘bizkarra’ *lorrin* ‘zikin’...

**M:** *martitzen* ‘astearte’, *motz* ‘itsusi’

**N:** *neba* ‘neskaren anaia’

**O:** *odoloste* ‘odolki’, *okaran* (gazt.) ‘ciruela’, *orkatila*, *osatu* ‘sendatu’, *ostean/ostantzean*, *ostera* ‘aldiz’, *ostabe(re)* ‘berriro’, *otzara* ‘saski’...

**P:** *paparra* ‘bularra’, *pista* ‘makarra’, *potxingo* ‘putzu txikia’

**S:** *sama* (gazt.) ‘cuello’, *sarri* ‘maiz’, *sats* ‘ongarria’

**T:** *tatarrez* ‘arrastaka’, *tirrina* ‘zilborra’, *txarto* ‘gaizki’, *txingor* ‘kazkabar’

**U:** *uger* ‘herdoil edo nazkagarri’, *ugazaba* ‘jabe’, *upilako* ‘ikaragarritzko’

**Z:** *zantar* ‘nazkagarri’ *zapatu* ‘larunbat’, *zarata* ‘iskanbila’, *zelan* ‘nola’

## VI. ALDAERAK

*Ahizta* ‘ahizpa’, *atara* ‘atera’, *baia* ‘baina’, *be* ‘ere’, *edur* ‘elur’, *eperdi* ‘ipurdi’, *etxe* ‘etxe’, *etzundu* ‘etzan’, *hazur* ‘hezur’, *iku* ‘piku’, *itxoso* ‘itsaso’, *jantza* ‘dantza’, *kerixa* ‘gerezi’, *kipula* ‘tipula’, *lebatz* ‘legatz’, *mustur* ‘mutur’, *narru* ‘larru’, *oraindiño* ‘oraindik’, *surtzilo* ‘sudurzulo’...

## **Ondorioak:**

Irizarrek (1992) bere lanean Bonaparteren sailkapena jarraitzen du, baina hainbat zuzenketa egiten ditu. Autore honen arabera, Gernikako ipar-mendebalean aldaera bat dago Bonapartek Gernikako aldaeraren barruan sartzen zuena, baina Irizarren ustetan, aldaera hori hobe legoke Gernikakotik kanpo. Irizarrek ipar-mendebaleko aldaera dioenean, Mungia (Bonapartek Atxuri eta Laukariz auzoak bereizi zituen) eta Maruri (Jatabe) herriak hartzen ditu kontutan eta, hauek Plentziako aldaeran sartzea proposatzen du (beste atal batean ematen ditu arrazoiak). Bonapartek ere bere garaian Atxuri eta Laukariz Plentziako aldaeran sartu zituen.

Irizarrek Gernikako aldaera hiru azpi-aldaeratan banatzen du eta 1970ean zituen euskal hiztun kopurua ematen du:

Gernikako azpi-aldaera (23.200 euskal hiztun)

Durangaldeko azpi-aldaera (12.960 euskal hiztun)

Arabako azpi-aldaera (40 euskal hiztun)

Beraz, Gernikako aldaerak 1970ean 36.200 euskal hiztun zituen. Irizarren sailkapenak, beraz, Gernikako azpi-aldaeraren barruan Busturialdea, Durangaldea eta Arabako eremu euskalduna sartzen ditu. Hala ere, azpi-aldaera hauetan erabiltzen ziren aditz formek eta Durangaldekoek desberdintasun txikiak erakusten zituen garai hartan eta Arabako azpi-aldaera bi hauetatik urrunago zegoen. Arabako azpi-aldaera hain zen desberdina, Gernikako aldaeratik desberdindu beharko litzatekeela pentsarazten duela, baina oraingoz Irizarrek Bonaparteren sailkapena errespetatzea erabakitzen du.

Azken euskalkien mapak (ik. Zuazo 2008), Durangaldea sortaldeko azpi-euskalkian kokatzen du, Gernika aldekoa sartalde eta sortaldearen tarteko-hizkera bezala sailkatzen du. Arabari dagokionez, Legutio eta Oletako euskara ere beste tarteko-hizkera bat bezala hartzen du. Aramaio, oster, sortaldeko azpi-euskalkiarekin batera sailkatzen du (ik. Ondorengo mapa. in. Zuazo 2008: 63):



Kontutan hartuta sartaldeko eta sortaldeko azpi-euskalkiak bereizteko hartu diren irizpideak eta goian aipatu ditudan Gernikako euskararen ezaugarriak, jarraian aurkeztuko dugun taulan, bokalismoa aztertuta bakarrik, ikus dezakegu Gernikako euskararen, bai sortaldeak eta baita sartaldeak ere, eragina dutela:

|                                         | Sartaldea         | sortaldea | Gernika |
|-----------------------------------------|-------------------|-----------|---------|
| <b>a &gt; e/ i, u</b>                   | +                 | +         | +/-     |
| <b>Part. -i galdu</b>                   | +                 | -         | +/-     |
| <b>i-a &gt; i-i</b>                     | +                 | -         | +/-     |
| <b>Hitz hasieran u-</b>                 | +                 | +         | +       |
| <b>JOAN, EROAN adizkietan -i-</b>       | -                 | +         | +/-     |
| <b>JOAN, EROAN adizkietan oa &gt; o</b> | + ipar sartaldean | -         | -       |
| <b>e + V &gt; i V</b>                   | -                 | +         | +       |
| <b>o + V &gt; u V</b>                   | -                 | +         | -       |
| <b>i + V &gt; ix V</b>                  | -                 | +         | +       |
| <b>eu &gt; au</b>                       | + (ez osoan)      | -         | -       |

Taulan ikusten den moduan, Gernikako euskarak ezaugarri batzuetan sartaldearekin egiten duela bat eta, beste ezaugarri batzuetan, ostera, sortaldekoekin. Esate baterako, sortaldean 'e + bokala' duten hitzetan, e hori i bilakatzen da, 'o + bokala' dagoenean, o hori u bilakatzen da eta 'i + bokala' dagoenean, x tartekatzen da

bokal bien artean, sartaldean, ostera, ez da horrelakorik gertatzen. Gernikan, *e* eta *i*-ren kasuan, sortaldeko bilakaera gauzatu da, baina *o*-ren kasuan, ostera, ez da bilakaerarik gertatu. Taulan ikusten diren lehenengo hiru ezaugarrietan, sartaldeko eta sortaldeko ezaugarriak lehian daude Gernikan. Badirudi garai batean Gernikako euskarak sartaldearekin lotura handiagoa zuela, helduengan ezaugarri hauek gehiago nagusitzen direlako gazteengan baino, baina gaur egun, arauok indarra galtzen dabilta. Ezin esan genezake, honegatik, sortalderantz begira jarri direla gernikarrak, euskara batuaren eraginagatik ere izan daitekeelako.

Gernikako euskara sartaldekoarekin lotzen duen beste ezaugarrietako bat, sozietiboan singularra –GAZ eta plurala egiteko –KAZ atzizki berria erabiltzea izan daiteke, sartaldean –KIN erabiltzen baita pluralean. Hala ere, Gernikako hiztunengan (gazte zein zaharrengan) oso lantzean behin –KIN sozietibo plurala ere entzun daiteke. Honek erakus lezake, garai batean –KIN zaharra erabiltzen zela Gernikan sozietibo plurala egiteko eta, gaur egun, sartaldeari begira dagoenez, honek egindako –KAZ berrikuntza onartu duela eremu honetarako.

Hala ere, beste zenbait ezaugarritan ez du sartaldeko euskararekin bat egiten, beraz, ezin koka genezake sartaldeko euskararen barruan. Adibidez, sartaldean –ZTAR eta –MINTU aldaerak daude eta, Gernikan, ostera, aldaera hauek arrotzak dira. Bokalismoan ere ikusi dugu Gernikako euskara ez datorrela bat %100ean sartaldekoarekin. Sortaldeko euskararekiko lotura ere ikusi dugu ez dela erabatekoa, beraz, Zuazo (2008) jarraituz, esan dezakegu, Gernikako euskara Mendebaleko euskararen barruan dagoen tarteko-hizkera bat dela.

## **Bibliografia**

- Bonaparte, Luis Lucien. 1869. *Le verbe basque en tableaux*. [1990an berrargitaratua in *Opera Omnia Vasconice*] Euskaltzaindia, Bilbo.
- Etxebarria, Joxe Maria. 1983. *Euskal dialektologiarako testo eta ariketa*. El Carmen Argitaldaria, Gasteiz.
- Gaminde, Iñaki. 1995. *Bizkaieraren azentu moldeez*. Labayru ikastegia, Bilbo.
- \_\_\_\_\_. 1997. "Mendebaldeko azentuak" in. *Mendebaldeko Euskara XX. Mende goiengan*. Mendebalde Kultur Elkarte, Bilbo.
- Hualde, J. Ignazio. 1997. *Euskareren Azentuerak. ASJU-ren gehigarriak*, XLII. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia
- Mitxelena, Koldo (1961 [1990]), *Fonetica Historica Vasca*. Berrarg. in *ASJU-ren gehigarriak*, IV.
- Txillardeggi & G. Aurrekoetxea (arg.). 1983 [1987], *Euskal Dialektologiaren Hastapenak (EDH)*. UEU, Bilbo.
- Yrizar, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. Donostia.
- \_\_\_\_\_. 1992. *Morfología del verbo auxiliar vizcaino (estudio dialectológico)*. Bilbao: Euskaltzaindia (I).
- Zuazo, Koldo. 2003. *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*. Elkar, Donostia
- \_\_\_\_\_. 2008. *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Elkar Donostia

## Transkripzioa:

### Oharrak:

-Gernikako euskarari ez dago hasperenik, baina komenigarria iruditu zait hauek idatziz ematea, hitzen esanahia ilun gera ez dadin.

-Gernikako euskarari txistukarien neutralizazioa gertatu da (mendebal ia osoan bezala) eta, beraz, transkripzioan agertzen diren z-k gaztelaniazko *ce*, *ci*, *-z* hotsei dagozkienak dira.

-Lanean aipatu badut ere, ez dator txarto berriro errepikatzea. Transkripzioan agertzen diren *y*-ak, [j] ahoskatzen dira eta *-il > ll > y* batetik datoz batzuk. Besteak, ostera, berezkoak dira (*yatez*, adibidez).

-Irakurketa errazteko, egiten diren kontrakzio gehienetan falta diren osagaiak parentesi artean jarri ditut.

-----

Ni: -Isena, abisena, noiz jaiso siñien ta nun, osea, nungoa saren.

Hiztuna: - Holan ondo grabetan deu? Hor distantzire?

-Bai.

-Ni Hodei Ensunza nas, Gernikekoa. Gerniken enitzen jaiio, baia Gernikekoa nas ta hogeta hiru urte dekotes. Jaixo nitzen miye bederatzireun eta larogeta seiko martxoan bedeatzisen, goiseko sortziretan. Enas akordetan, baia amak konteta. Ta txikitxetik joa nitzen Barruti ikastetxera. Barruti ikastetxie dau hor, Gernike kanpoan. Gernikekoa esta beres, Arratzukoa da, baiña, bueno, Gernikeko jentie be bertara joaten da ta herrixetako inguruko jentie.

-Selan juten siñien?

-Juten giñen, estait, goixien estait se ordutan ixete san, guk ordue txikitxen es gendun kontroletan- da! Guri bardiñ ixeteskun. Hemen, San Juan Ibarako mueblerixen itxaoten (do)tzagun autobuseri. Han etorte zan autobuse Gernikeko danak batu ostien ta Mendatakoak eta be bai, esta?

-Bai, lenengo Mendatatik eta pasetan zan, ta Ereñotik.

-Bai, bueltie eitxen ban. Gu askenak isete giñen, igon ta eskolara, posik, danak. Ta estakit, eskolako, nik, kontu asko dekotes kontetako, baia gehixena akordetan nasena, igual, ba jatekoa e'yaten gustetan bapez ta hori, gausa bi gusteten yatesen bakarrik ta bata arroz a la kubana, ta astelen danatan egote san arroz a la kubana. Ta, gero, barikutan beti lentejak ta tortiya patatas. Ta selako amorrue emote (do)sten horrek, es bata es bestie e'yaten gustetan. Ta beti ondokoari emoten jateko. Ta, bueno, urteta sanien ondo, baia irakasliek ikusi eskero, han etorten san jaten obligetan. Es ta(k)it, ba, nik eitxen nabesen tratuek, "jango (do)stasu eta gero nik es ta(k)it se debere itxiko (do)tzut kopixetako" ta konpontzen giñen, nintzen. Behin akordetan nas geratu nitzela hor, anburgesa uger bat jateko, bai, anburgesa ugerra saltsa kutre bategas. Hor Mari Sofik eduki (do)sten jan da ni negarres da danak urten (e)bien ya patixora fubolera jolasten da ni bakarrik jantokisen, garbitzayiek han garbitzen da ni anburgesa santarragas aurrien. Ta e'naben jan, askenien kendu ein biher ix(e)n (do)sten aurretik. Ta hori, ba, hori, jolastorduetan, ba, beti (ei)txen gendun fubolera jolastu, (XXX ensan jan????) edo bestela goiseko jolastorduen be bai danak korrika urten, semat eta hobeto aprobetxetako denporie, kanpo fubola hartu baloiegas da benga, ekipoak eiñ da iserdixe botaten, da gero, ostabe, iserditxute, klasera. Da ordu gehixau pasegus Barrutin fubolera jolasten...! Puf! Baloie es taki(t) nun engantxeta geratze sala, urten ein' ei bi sala biye kanpora jeusi salako edo es tai(t) ser ta abenturas, abenturak.

-Ta, gero, ekipoa be euki senduen, esta?

-Bai. Gero fubitoko ekipoa eukitxe gendun da, joe, ixen giñen ónenak. Athletic be gure atzetik ibil san, baia es toskun konbensidu bateri bes. Beti eitxe gendun asken, baia posik, posik paseu. Beiñ akordete nas partidu bat irabasi gendule da entrenadorak txokolatadie ei(n) (do)skun. Gonzalok, akordetan sara? Txokolatadie. Ta, bueno, super posik. Ondo paseta gendun da fuera. Se gehisau gu(re) (do)su kontetie eskolako?



Antzerkisek eitzen gendusela ta hori? Ba antzerkixek eitxe gendusen da ni beti narratzaye. Nik beti nahi naben isen protagonistie edo beste seuser, baia narratzaye beti. Ta, bueno, ba narratzaye. Ensayoak eitzen gendusen, bakotxak esan biher bana prepareu ta han, ba, bueno, gero kriston barriek be bai txarto urten salako bertan gurasoen aurrien ein biher san egunien txarto urtetan san edo es takit ser, da. Beñ akordeten nas, narratzaye isen e'nintzen baten se nagusixekas eiñ gendun justo ta bueno, beste batzuk egon siren narratzaye ta nik ei(n) naben, sirku bat isen san, ta lehoiena, ta egon giñen, ni, Mirri ta Abadia ta hirurek lehoiena eitzen da esate(n) (do)skun domadoriek “altzeu eskumeko eskue” ta, bale, eskumekoa altzeu da Mirrik eskerrekkoa altzeta ban. Holakoak miye, holakoak. Gero, akordeta nas be bai bakotxan urtietan gosokixek eroáten gendusela klase osoantzat da kriston ilusiñoa eitzen ban aurreko egunien edo astebete ariñau edo joatie gurasoakas, hor, elejiduten se nahi (do)sun sure paketien egotie ta gero, han, kriston sakuegas klase danántzat.

-Ta Olentzérotan, Gabonetan eta ser?

-Barrutin? Olentzéro etorten san han da ume danak soroan moduen, posik, karameluek eta ekarte (e)basen da benga. Trenien eta gero furgoneta baten etorte san be bai, trenien barik. Ta gero, hori, urtero eitte san be bai eskolako jaixe ta hor egunien eukitxe gendun “janari berezia” ta hori bai, hori ona egoten san! Hor dana ona! Karo, gurasoak joate silako, nik usteot, ipintxen bien han janari ona ikusteko gurasoak ondo jaten dala. Ta hori, ta gero partidue fubolekoa ta holan be bai eitzen san ta hori, medayak gordeta egongo die hortik kajaren baten, urreskoak da, joe! Selako ilusiñoa!

-Orduen irabasten senduen, esta, eskolan?

-Orduen bai, baia eskolakoan kontra! Beste eskolatakoan kontra ez!

-Da jantzan eta be bai eitzen san, esta?

-Bai, eitzen gendun jantzan. Arratsaldetan edo nik uste (d)ot iseten sala. A! Da gero Dantzari Eguna. Egun baten, maiatzien iseten san? Pasilekuen edo bestela plasan be bai in san nonos, esta? Eta Tanborradie! Egixe! Oiñ esta eitzen, edo bai? Es. Tanborradie urtero, joe, hori ya es takit nox isete san, baia ez pan koinssiduten Donostikoagas iños.

Ba, hori. Han gure trajiek eñ, amak josi ta tanborrak apurtzen, beti han miye sulogas tanborra, baia bueno. Ta gero emote (do)skuen boltsa bat boyoakas eta Kasagas edo es ta(k)it se isete san da han danak, sera baiño posau, juergán, betiko anbientien.

-Ta Kandlerixon eta se eitxen gendun?

-Barrutin? Eskola gustitxik kandelak...a! Lenengo eitxen gendun, kandelan...selan esaten da? Negarra jeusteko hori selan da...esteko isenik? Hori pintxeu, gastaian kajiegas, esta? Egixe, astute eduki (d)ot! eta hori pintxetan, ba es takit nik, plastikan edo se klasetan ixengo san ta hórrek pintxetan da, gero, han kandelie sartun erdixen ta eskola gustitxik Kandlerixo kantetan, gela danatetik, prosesioa. Se gehixau Barrutitxik? Lagundu suk apur bet. Sireniek sonetan bala beti. Jolastordue ta gero edo ariñau be bai urtetako sirenie hor “wiiiiiu” bonbardeoa ixengo basan moduen ta danak han korrika, sarataka jolastordue dala-ta. Bai sartzeko ta bai urtetako.

-Da gero, Barrutitxik nora jun ziñen?

-Barrutitxik, seigarren maya eñ (n)aben Barrutin ta lenengo DBH eitxen Ayendera pase nintzen. Osea, beres Istitutoa san, baia Istitutoan e’san egon lekuri ta Ayenden emoten sien klasiek. Gehixen bat ama Istitutoan zeuelako da berak nahi isen (e)ban hara juatie, ba, hara. Ta, gero, ba hori, Ayenden, ba, lagun barrixek, kuadriya barrixe ta, estakit, Barrutikoakas ondiño lagun ixeten segidu naben da ondo. Asken fiñien, ondo eroaten nazen jentiegas, ba, eurekas. Sean de donde sean. Erderas es teu balixo, esta?

-Hoba es, baia. Ta, gero, gaixorik egoten giñenien ser, nora juten giñen?

-Amuman etzera beti. Ta amumak beti, jakin ban niri arrosa gusteten yatela ta beti ipintzen (e)ban arrosa limoiegas hor ta bigarrena e’nas akordetan se ise...okelie! esta? Okelie edo lebatza be bai. Bai, gixorik egoten giñenien lebatza, lebatza, egixe. Ta gero mayukixek eta holan be bai. Ta ni urte baten Istitutoan egon nitzenien gogoratzen nas be bai amuman etzera joaten nitzela, es ta(k)it, martitzenak edo isete sien se ama ta aitak esin (e)bien ein jatekoa ta amuman etzera joate nitzen ta beti pregunteta(n) (do)sten “Se gu(re) (do)su Hodeitxu?” “Amuma, ipiñi gu(re) (do)suna, nik edoser jango (d)o(t)-da!”

Ta hori. Gero, erosten basen hor, holako pasta kaja batzuk eukitxe (e)basen ni joaten nintzenien jaten da, gero, beti ataten (e)ban.

-Da gero Istitututik?

-Istitututik, akordeten nas. Askeneko urtie ta Selektibidadie ta es takit ser ta elejidu ein bi(her) dala ser gu(re) dan ikasi ta es takit ser ta joe, bale, elejidu bi(her) da baia idea askorik parik. Askenien es ta(k)it, tope naberen hau karrerie Arrasaten Diseño Industrialeko Injenieritza Teknikoa ta ikus naberen, ba, gustu eitzen yaten Diseño ta holan ta ordenadorak-eta ta es takit, ikusi naberen apur bat sala beresixe, es ta? Danak eitzen bien ba, iwal e, Injenieritza Teknikoa, ba, Mekanika edo es takit ser. Ta nik ikus naberen hori beresixe sala ta anime ein nitzen. Arrasaten bakarrik egon san, txarrena hori, Arrasatera joan biher isen nintzela ta gurasuek pagau ta hori, baia bueno, askenien beste esperientzi bat kanpora joatie, bai. Ta gero, Arrasaten lau urte, oniño hango proiektue eitzen nabil-da! esin eskapau handik. Es, baia Arrasaten be, hori, gustora. Karreriegas es horrenbeste baia esetuneko jentiegas ta hori, bai. Oso gustora. Jun giñen lenengo urtien, hona, residentzire. Biteri Ikastetxe Nagusia, Colejio Mayor. Ta han egon san susendarixe, *Txikolo* deitze(n) (do)tzagun, isena selan dekon be es takit, ta harek hamen istorixek kontetan hasi eskero geratu be es kiñen eingo. Beñ, akordetan nas, Gasteisera joaten giñela lenengo urtien piyo bat juergan ta han, goiseko saspiretan heldu residentzire bueltan ta nik beti eitzen naberen, ondiño eitzen dot juergie ta gero, ba, eroste(n) (d)ot holan batidoa-edo etxera joan baño...ta han etor nintzen nire bi litroko Okey-edo, selan deitzen san batidoa? Panaderixen erositxe, fresko fresko, edateko han, lo ein baño ariñau ta hau kabroie, *Txikolo* han resepsiñoan jesarritze, banan-banan sartzen giñen atetik “Benga, sure isena”, apunteu papel baten, ta hurrengo egunien danari, isen danari deitxu ta batzar bat ta “Bai, se pentseta(n) (do)sue, hau es tala holan, se kanpoan eingo ba(do)suen lo abiseu ein bi(her) da se es takit nos paseu yakun...” Arrasoi gustixegas, baia ariñau esan! Es esan gero. Ariñau esan eskero, esango gendun da fuera. Majoa san, baia apur bat...selan esang(o) (d)ot nik...fraiye-edo. Gero, ba, residentzixen hori, ondo se lagun piyoa esetu gendusen ta hori, baia san apur bat “sekta”. Danak bijilantzixe, gausak ein biher sien isteko segiduten residentzixen ta, askenien batu giñen batzuk ta pisure eskape gendun. Ta hori, bos(t) mutiyegas joan nintzen pisure, residentzixen nire gelan egon san Peru, Xuban, Lizaso, Aritz ta ni joan giñen. Ta hori, bost astoan pisuen, unibersidade ondoan euki gendun piso...txikitxue

san, baiña majoa, ondo egon san. Ta konpontzen giñen, garbitzeko es horrenbeste, hasi giñen intentziño onakas, baia ariñ paseu yakusen eta ondo. Gero, jateko ta turnoak eitzen gendusen fregae eitzeko-ta, harrikue eitzeko. Gero, Aritzek akabe (e)banien, Aritzek lenengo akabe (e)ban, urtebete ariñau bestie(k) paño, itxi in (e)ban ta Beñat etorri san, Donostikoa.

-Ta oin setan sabis?

-Oin karrera bukaerako proiektue eitzen Maiarren, ta praktikak. Udan ego nitzen, geratze yaten bat aprobetako, Dinamika bi ditxosue, aprobe naben da gero argi euki naben Arrasaten e'nabela gure segidu beste urtebete, se ya kantseta Arrasategas ta Gerniken lortzie koste yaten be bai, askenien aitxek lagundute lortu naben Maiarren lortzie ta hori, gustora. Proiektue apur bat, oin momentuen es tau puntu onien baia bueno, bertan Maiarren nauen jentiegas kriston ambiente ona dau, jente gastie dau, majoak ta ondo, oso gustora. Ta eitzen dotes, beres da lau ordu proiektue eitzeko ta beste lau praktikak die, baia bueno, es ta eitzen holan, separeta, su saus han da gu(re) (do)suna eitzen (do)su, dekosuna ta hori, kaka bat pagetan (do)tzue bai, hori egixe da, baia danak pasetan die hortik asike pase ein biher. Bertan jate(n) (d)ot, jatekoa taperratan eroan ta frantsesa ikasten be hasi nas. Tutoriek esa(n) (do)sten unibersidadekoak eskeintze(n) (do)stien dana baietz esateko, ikesteko, ta gratis badan, ba, aprobetxetako. Holan hasi nas frantsesien be bai "an, de, trua, kat", gixau es. Es, badakit. Ehunerarte dakitx eta gehixau be bai, e, baia, bueno, jakin naben urtarriyen, behintzet!

-Da krisixe igerten da?

-Bai, bai, bai. Igerten da. jentie umorie, bueno, umorie, umorie badekie, baia jente pillo bat kanpora joan da, es takit ser, gausak baltz daus, gaiñera hori, automosiñoan gehixau igerri da krisixe ta hori. Badabiz medidak-eta hartzen da jentie botateko baño, hobeto jentiek al jarraitzie, baña igual pertsona bat egon dana igual laboratorixoa lanien oin beste postu batera pase da bertan lanik es taelako ta holan. Ba jentie reubiketan ta hori.

-Eta, askeneko preguntie: Zure afisiñoak.

-Uf! Nire afisiñoak? Pillo bat dekotes. Handixena handixena, musikie.

-Selan hasi siñen?

-Selan hasi nintzen? Musikie es takit, nik betidanik uste (d)ot gusteu isen yatela, txikitxetik ta dana, baia gero akordetan nas, hasi giñen Mirri ta ni bere anaixe nagusixen CD-iek eta entzuten ta holan hasi giñen apur bat musika Rock-a ta gogortxue entzuten, Gorkan CD-iek, bueno, kasetan sien hor epokan, kasetak, da berak be grabe eitxe(n) (do)stesen kasetak ta gero ya ni hasi nintzen nire gausak erosten-da ta hori. Oiñ miye talde diferente entzuten dotes, untxe ikusten dotes hor diskoak be bai osabak emo(n) (do)stesenak, biniloak ta reproduktora biniloana Araitzek erregale (do)sten, oin ordenadorien be musika piyo bat...ta gero, hamalau urtegas Mirrik eta Sandaliok konbensidu (do)stien gittarrie joten hasteko, talde bat eingo gendula-ta, Mirri hasi san bajue ikesten, Sandalio baterise ta ni gitxarrie ta gero han batzen giñen, Sandalion aitxen lonjan saratie ataten ta besiñoak handik bota (do)skuen arte. Gero, horra, Kanpantxuko eskola sarrera. Han esa(n) (do)skuen lekue dauela nahi ba(do)gu jo ta bertara. Aitzek eta Artrosisekoak hueko bat ei(n) (do)skuen eta bertara. Gero handik be...han Aitzen aitxe isen san alkatie han epokan Kanpantxukoa, bo, Ajangisekue ta sales (zenez) HB edo Euskal Herritarrok edo es ta(k)itx ser san, sin mas, ondo. Ta gero ya Juan Pedro, Pedro-edo es ta(k)it selan san, Pedro uste (d)ot ta gero kantzerra edo euki (e)ban, hil ein zan da gero pase san ilegalisasiñoak eta hori dana da gero PNV etor san, oiñ hori edifisixoa renobeu eiñ ddabe, es ta(k)it ser dauen bes da pase nas handik nonos da renobeta dau, baia es ta(k)it ser dan. Gero Gernikeko talde danak batu giñen da leku bat hartu gendun ensaietako, guk ordaiñddute, guk ein dogus gure lokalak da Udaletxiek es dosku emon oniño diru laguntzarik es inolako laguntzarik es tosku emon.

-Oingo lokalak selan deitzen dires?

-Iparragirre.

-Eta selan sortu san?

-A, ba hori sortu gendun...hamen batzen hasi giñen...hasikeran lokalik es esebes es kendun euki ta batzen giñen Txosna Batzordien lokalien. Han lau gandul batu da idea soroak botaten hasi ta esan gendun, ostra, Udaletxiek es tosku emoten esebes, ba seuser ein bi(her) (do)gu herrixe konturatzeko se paseta yakun, esta? Gure ustes esan isen justoa eta, ba, guk pentseta gendun jente piyo batek gure alde al bala ein ta seuser lortu holanik. Ta orduen pentse gendun, ba, notisi faltsu bet atatie, kartelak ipintxie ta holan ein gendun periodikoko orri bat falsifikeu eta ipin gendun berri moduen Juntetxetik Iparragirren gitxarrie ostu dabela nonok eta, joe, ipiñi gendusen kartel piyo bat, no se ke, ta herrixen kriston surrumurrue egon san “joe, entzun (do)su hori, gitxarrie ostu dabela ta es takit ser da”. Herri gustixen krixton moskeue ta gero, ba, handik astebetera-edo atara gendun gesurre isen dala, baia isen dala eskatzeko lokalak edo seuser, laguntza bat Udaletxieri ta parkamena eskatu gendun be bai, nonori miñ ein ba(do)tzon hori entzutiek ta es ta(k)it baia asken fiñien es hartzeko txarrera da, bertan momentuen, gogoraten nas e! Aldabak, adibides, gure kontrako artikulo bat ata(ra) (e)bala holako berrisek esin diela holanik atara, herri gustisen kriston alborotue sortu ta gero eurekiñ ein gendun berba be bai, esplike gendun sein san situasiñoa ta eurek pe gero gure alde ipiñi sien, atara (do)skuen artikulo bat gure araso dana espliketako ta hori dana, ta askenien handik, ba, kamiseta piyo bat, festibal bat ein gendun azaltzeko be bai hori dana ta, ba, hortik lortu gendun herri osoan apoyo bat. Ta, gero, in gendun be bai, kamioi baten, bertan joten gendun taldiek saratie ataten atsalde baten, kamioie monteta herri gustixen sier bueltak emoten da horrek be kriston esittue euki (e)ban. Baia Udaletxie, bardiñ, kaka. Belarri batetik sartun da bestetik urten eta *a dia de hoy* bardin segitzen (do)gu se ekañien gure dogu festibal bat organiseu, gabis kriston jестиñoak eitxen, es takit se talde nahi dogula ekarri, ta Udaletxiek, esebes es tosku emoten. Eskatze(n) (do)tzague komunek, parkiñe Astrakoa osorik, esate(n) (do)skue parkiñen sati bat emote(n) (do)skuela, komunek esetz ta emote(n) (do)skuela diru limitau bat ekipoa pagetako bakarrik, soiñuko ekipoa ta beste esebes. Ba, bueno, eurrera eingu (do)gu. Ia ondo urtetan badaben ta fuera. Ta oin, taldiegas ba bueno, gabis ba...atara gendun CD bat, Eutanasiagas eta oiñ bat lanien dauela, Sandalio egun osoa tabernan ta batzeko gatx gabis, baia bueno. Eitxen (do)gu seuser ta bagabis kanta barrisek ataten, ilusiñoagas, ba, gero beste seuser grabetako eta listo. Oin gabis beste talde bat Edorta, ni ta Mirrik ein doguna ta...

-Selan deitzen da?

-Tuz (Tooth). Hagiñe. Ta hori, denporie pasetako, es takit, askenien gusto bardiñek dekogus ta ondo pasetan (do)gu joten alkarregas.

-Ta se afisiño gehixau dekosu?

-Puf! Bes? Esan (do)tzut nik musikie dala handisena! Kirolak, kirol danak gustete yatez, gehixen bat fubola ta txirrindularitza. Txirrindularitza da apur bat, igual, esberdiñe ze jente askori gustete yako, baña, estait, normalena fubola gustetie da. Fubola bale, baia niri txirrindularitzie piyo bat gustete yate.

-Txikitxetik, esta?

-Beti, beti. Txikitxen han, Indurainek Turrek irabasten (e)basenien eta Pantani. Ni Pantanin fana nintzen ta han, periodikuen rekorteu eta albunetan gordetan nabesen ta han dekotes oin dala piyo bat urteko rekortiek etzien. Ta, gero, ya akordeten nas, Amstron(g) hasi sanien irabasten, osea, lenengo Turre irabasi (e)ban eta ya itxi (ei)n naben. E'yaten gustetan esebes hori tipoa ta gero saspi Tur irabasi (e)basen kabroiek. E'yaten gustetan. Ta oin ostabe etorri da ta kamarie txupeu, esebes gehisau.

-Ta Abastarren se eitxe gendun?

-Porrie Turrekoa. Eitxe gendun, ba, Jasone Karmelegas, su ta nik elejidu, es takitx, sorteue-edo eitxe gendun? Es takitx selan san. Nik uste (d)ot guri ónenak iste(n) (do)skuesela, eurek eitxe bien sorteue ta gero guri ónenak, igual Indurain, Zule, Birenke, Pantani ta eurek es takit. Ta gero hori. Dirue ipintxen gendun ala? Nik uste (d)ot esetz. Baia ilusiñoa eitxe(n) (do)skun, kristona. Ta ondiño segitzen (do)gu. Nik oiñ Ariman eiñ ddot porrie ta interneten tropelak be bai, beti, beti saltsan.

-Da jute giñen ikusten be bai.

-Bai. Jun giñen. Ta Laisekak irabasi (e)ban etapie, e! Han Turmaletetik pase sala ta guk hotela euki gendun Turmaleten, hotelan aurrien ta han, karabaniek botaniko ur boteya bero-bero-bero-beroa nik Laisekari emon notzon ta justo eskapeta joan san da hartu

(e)ban hori, bota (e)ban ganetik, harrapeu eiñ (e)bien, nik uste (d)ot uren...es, arrape ein (e)bien da gero hurrengo mendisen ostabe atakeu (e)ban da irabasi.

-Jo, baia urte gehisauten be jun gara.

-Bai, bai. Piyo baten. Osabagas-ta. Osaba ta Peyo be afisionauek die itzelak siklismoana ta eurekas. Otsóak irabasi (e)banien be bai, han Oubisken egon giñenien, kriston belañue, eurixe ta dana egon sala ta Otsóak eskape eiñ (e)ban ta hori be esan isen askenengo mendixe, asken aurrekoa isen san da eskapeta pase san hortik ta gero pelotoie. Ta gero joan giñen tabernara ikusten ta han, Otsóak ondiño eskapeta segiduten (e)ban da Amstronek jo (e)ban atzetik, baia es (e)ban arrape ta kriston ilusiñoa “O!, Otsóak irabasi deu”. Ta gero handik urtebetera edo bi urte edo es ta(k)it semat denpora ise san, Otsóa anaisek entrenetan egon siela kotxe batek jo (e)basen da bera hil ei(n) san, Jabier Otsóa ta bere anaisek oiñ paralinpikoatan korritzen deu. Geratu san apur bat ikutute.

-Ederto. Bale ba. Eskerrik asko Hodeitxu.